

## FUNTSEZKO SOZIETATEAK

---

Gure enpresak lau bazkide izango ditu; Unai Mesas, Susel Ferra, Unai Guantes eta Naia Naveran. Hala ere enpresak aurrera egiteko beharrezko izango ditu kanpoko enpresa batzuen laguntza edo akordioa.

Dinuy enpresarekin akordio batera heltzea pentsatu dugu, eta haiei hurrengoa proposatzea; hau da, gure enpresak haiei kontratatuko die sentsoreen ekoizpena eta instalazioa eta haiek arduratuko dira guk esaten diegun lekuetan instalazioa egiteaz. Beraz instalaziorako enpresa bat kontratatzean hasierako kapital handirik ez dugu beharko, eskaeren arabera eskatuko dugulako. Hasieran lehen bezeroei zerbitzua eskaini ahal izateko diru kopuru zehatz bat beharko dugu, baina kostu murriztua izango da.

Enpresarako hornitzaile nagusienak sentsoreen enpresa izango da, guk, enpresa horri sentsoreen ekoizpena eta instalazioa kontratatuko diegulako. Sentsoreen hornitzaileak beharrezkoak dira proiektu honetan, zerbitzua eskaini ahal izateko.

Trocobuy guretzat funtzesko sozietate bat izango da, non hornitzaileak eta bazkideak lortuko ditugun.

App-a sortzeko, agenzia baten bidez sortuko dugu, NeoAttack izenekoa, agenzia homek app-aren sorreraz arduratuko da.

